



HEZKUNATZA ETA
PEDAGOGIA PROSEKTUA

SARRERA

Dokumentu honek **Colegio Público Buztintxuri Ikastetxe Publikoa-ren Hezkuntza eta Pedagogia Proiektua** biltzen du.

Hezkuntza Proiektua gaur egungo Arautegia jarraituz egindakoa da. 2006ko Maiatzak 4ko Hezkuntzako Lege Organikoaren arabera ere osatu da, zeinak 120. artikuluan dio:

*“Ikastetxeek Hezkuntza Proiektu eta Kudeaketa Proiektu bana eta
Antolaketarako eta Funtzionamendurako Arauak sortzeko,
onartzeko eta burutzeko autonomiaz gozatuko dute.”*

Aurretik aipatutako Legeak, bere 84. artikuluan dio:

*“Ikasle bakoitzaren matrikulazioak, Ikastetxe Publiko zein Pribatu Stundu batean,
Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren errespetua dakar,
Legediak Ikasleei eta haien Familiei onartutako eskubideak kontutan izanik.”*

Dokumentu honek Ikastetxeko xedeak era argi eta motz batean helaraztea du helburu, Ikastetxeko oinarrizko ezaugarriak definituz. Buztintxuri I.P.-ko berezko dokumentua da.

Hezkuntza Proiektuak ohikeria saihestu behar du, gure lanaren balizkotasuna eta zentzutasunari buruzko hausnarketa sustatzea era behar beharrezkoa delarik. Ondorioz, praktikara eraman behar da eta, handik aurrera, berraztertu eta hobetu aldaketa eta berrikuntzen bitartez.

A.- NORTZUK GARA?

1.- IKASTETXEAREN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK

Colegio Público Buztintxuri Ikastetxe Publikoa Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea da eta Iruñeko Buztintxuri auzoan kokatuta dago, zeina Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren barnean dago.

Buztintxuri Iruñeko auzorik gazteena da eta bertan 6.573 pertsona bizi dira. Auzoko bizilagunen gehiengoa familia gaztez osatua dago, eta biztanleen ia %17-a 10 urte baina gazteagoa da.

Auzoan %22,7-ko etorkin dago, eta ondorioz aniztasun kulturala nabaria da. Atal sozioekonomikoari dagokionez, mota askorekin aurkitzen gara.

Auzoan Osasun Etxea, Auzo Unitatea, Haur Hezkuntzako Eskola eta Ikastetxea bera daude.

Ikastetxearen inaugurazioa 2009/2010 ikasturtean egin zen, Haur Hezkuntzako 1. Mailako ikasleriarekin. Ikasturtez ikasturte Mailak aurrera doaz, ikasle berriak etorritz.

2017/2018 Ikasturte arte itxaron beharra dago, Haur eta Lehen Hezkuntzako Etapak osatzeko, Maila guztiak ikaslez beteta egongo direlarik.

Buztintxuri I.P.-k hiru Hizkuntz Eredu eskaintzen ditu: A Eredua, G Eredua eta D Eredua. Ikastetxean dauden Hizkuntz Eredu guztiak, Ingelesaren Ikasketa Programa barruan daude.

Hizkuntz Eredu bakoitzak, Ikastetxean irakasten diren hizkuntzen ordu kopuru desberdinak dauzka, eta hau honela izanik, Hizkuntz Eredu bakoitzari behar desberdinak egokitu behar zaizkio. Hezkuntza Proiektuak aipatutako faktorea kontuan hartzen du, eta Hizkuntz Eredu bakoitzaren beharrak zaindu eta errespetatuko ditu.

2.- GURE ESKOLAREN EZAUGARRIAK

Hezkuntza Taldea osatzen duten pertsonen eta Ikastetxeko Ikuskariak Ikastetxeko nortasuna zehaztu dute. Ezaugarriak hauek dira:

KONPROMISOA: Elkartasuna, lankidetzak, kooperazioa, errespetua eta berdintasuna (genero aldetik eta kultura aldetik) bezalako jarrerak eta baloreak sustatzea, eta Ingurugiroarekiko konpromisoa izanik.

SORMENA: Hezkuntza Komunitateko partaide guztien proposamenak originalak, osasuntsuak, gogoetatsuak, etab. Izanik.

IREKIA: Batua, bere izaera duena, parte-hartzailea, komunikazioa lantzen duena, integrazioa bultzatzen duena eta gertukoa.

BEROA: Eskolan parte hartzen duten pertsona orok, segurtasuna eta lasaitasuna sentitzea, harrera ona jasotzea, entzuteak izatea, ulertuak izatea, motibazioaz gainezka egotea, Eskola beroa eta bizia helburu.

KOHERENTZIA: Hezkuntza Komunitatearentzako eredia izanik bere Hezkuntza-bidea.

DIBERTIGARRIA: Eskolan, egunez eguneko oinarriak, jolasak, esperimenezkoak, zuzeneko eskuztatzea eta bizipen aberasgarriak izanik.

ELEANIZTASUNA: Hezkuntzen aberasgarritasuna xedea duen filosofia daukagu, gaitasun linguistikoa helburua izanik.

Ezaugarri hauek aurrera eramateko, Buztintxuri I.P.-ko Hezkuntza Taldeak, formazioa bateratua, etengabekoa eta iraunkorraren aldeko apustua egiten du. Gure Eskolako Proiektuaren parte izan nahi duen langile orok, apustu bera egin beharko luke.

B.- ZER NAHI DUGU?

1. IKASTETXEKO HELBURU OROKORRAK

- Hezkuntza Komunitateko eragile guztien parte hartzea bultzatu.
- Gure Hezkuntza jarduerak aberasten laguntzen duten arlo desberdinetako Erakundeekin elkarlanean aritu.
- Eskolan ikasketarako erabiltzen diren hiru komunikazio-hizkuntzen garapen harmonikoa bermatu, komunikazio-hizkuntza bakoitzaren beharrak kontutan hartuta.
- Metodologia aktibo eta ludikoaren garapena aurrera eraman, zeina haurren behar eta interesen arabera izan beharko luke.
- Haurren eboluzio-prozesua errespetatu, zeina integrala den (kognitiboa, fisikoa, afektiboa eta soziala).

2. HEZKUNTZARAKO BALOREAK

Ikastetxean sustatzen diren balore garrantzitsuenak hauek dira:

BATERAKO HEZKUNTZA: Ikasleri guztiarentzako aukeren aldetik berdintasuna, estereotipo eta eginkizun sexista eta oldarkorren errepikapenak saihestuz. Harreman eta esperientzia osasungarri eta afektiboki orekatsuak bultzatu.

ELKARTASUNA: Hezkuntza Komunitatea osatzen duten pertsona guztienganako, elkarrenganako errespetua eta elkarlanaren bultzada.

LANKIDETZA: Lankidetzaren sustatzen duten harremanak bultzatu Hezkuntza Komunitateko eragileen artean, baita beste eragile batzuekin ere (Hezkuntza mailakoak, Kultura mailakoak, etab.).

INGURUGIROAREKIKO KONPROMEZUA: Ingurugiroarekiko errespetua bultzatzen duten jarrerak lagundu, berrerabilpena eta birziklapenaren bidez.

KULTURA ANIZTASUNA: Gure ingurunearen kultura propioa abiapuntu bezala hartuta, kultura ezberdinen ezagutza eta bere idiosinkrasia sustatu errespetua eta onarpenaren bidez partekatze.

ELKARBIZITZA: Harreman harmonikoak eta adeitsuak bultzatu, Hezkuntza Komunitateko pertsona guztien aldetik eta pertsona guztientzako, egunerokotasunean norberaren jarreraren bidez.

3. FESTAK ETA OSPAKIZUNAK

Gure Eskolan berezko festak sortu ditugu, ikuspuntu guztiz pedagogikoa erabiliz.

Gure nahia metodologikoki eta pedagogikoki hasitako bidea, bizi ditugun jai-esperientzietan isla izatea da. Eskolako arlo guztietan, aurretik aipatutako nahia txertatua egotea garrantzitsua da, batasuna eta koherentzia ezarriz.

Proiektu integratzaile batez eta festa filosofia batez ari gara, zeinak **nortasun propioa** duen Ikastetxe bat sortzen laguntzen dute, batasuna sortuz. Esperientzia berezi hauek gure Eskolak sortutakoak dira, Ikasturte barruan bizitako esperientzien zati bat izanik, eta familia barruan eta gizartean bizitakoen osagarriak dira.

Festa hauek, bide batez, gure proiektuaren sormenean jarraipena ziurtatzen dute. Festek, gure proiektua osatu ez ezik, definitu eta hezkuntza kalitatea ematen diote ere.

Hauek dira gure Eskolan aurrera eramango ditugun festa eta/edo ospakizunen ezaugarriak:

- **Neguaren etorrera Olentzerorekin**
Gabonetako oporren bezperan izango da. Festa ludikoa da eta sukaldaritza kutsuaz osatuta dago.
- **Ihauteri Festa**
Eskola osoak parte hartzen duen proiektu komuna da, gela-gunean garatzekoa. Festa auzotik barrena kalejira baten bitartez ospatzen da.
- **Artearen Festa**
Artearekin harremana duen festa da eta erakusketa kutsua du. Ikasleriak egindako artelanak aprobetxatzen ditugu, auzoak bere egin dezan Ikastetxean bizi dugun guztia. Ikastetxeak auzoarekiko jarrera irekia izatea oso interesgarria iruditzen zaigu, auzoaren gune desberdinak eraldatuz eta Ikastetxeko proiektua zabalduz. Familiei gonbidapen zintzoa helaraziko diegu parte har dezaten gonbidatu nagusi bezala.
- **Bidea egin-Caminando-Walking**
Eskola osoa eta baturik egindako ibilbidea da, auzotik barrena hain zuzen ere. Auzotik barrena ibiliko gara, Ikasturtez Ikasturte zati handiagora iritsiz, kalez kale, etab. Ikastetxeko familiekin gozatzeko festa izatea nahi dugu. Familiak jai-ekintza honen partaide izango dira, haien seme-alabekin batera.
- **Kurtso Bukaerako Festa**
Festa ludikoa da, non Irakasleriak eta Ikasleriak Ikasturteari agur esaten dioten.

4. JOLASTOKIA, HEZKUNTZARAKO GUNEA ETA TARTEA

Gure Eskolan ezartzen ari garen Eskola Filosofia eta gure Hezkuntza Proiektuaren konfigurazioa ardatz harturik, erabateko garrantzia ematen diogu Ikastetxeko gune guztiei.

Jolastokiaren egitura, zein motatakoa den, bere apainketa, elkarrekintzarako elementuen antolamendua, zainketa eta garbiketa, haurren jolas motak, hein handi batean, baldintzatzen dituztela konturatzen gara. Hau honela izanik, haien arteko harreman motak ere baldintzatzen dira.

Gure Ikastetxea, Baterako Hezkuntzarako joera argiarekin jaio da. Jolastokian, askotan, haurrak helduen begiradatik kanpo gelditzen dira, eta momentu horietan agintea ezaugarria duten egoerak ematen dira. Egoera hauetan jolas mota batzuk inposatzen dira, guneak bereganatuz eta beste motatako esperientziak alboratuz. Azken esperientzia mota hauek, agian, lasaiagoak eta ez horren agerikoak dira.

Jokoetarako elementu itxiek, zeinek jolaserako eta elkarrekintzarako aukera bakarra eskaintzen duten, ekimen horiekiko erakarriak sentitzen ez diren haurrak baztertzen dituzte.

Buztintxuri I.P.-n, haur guztientzako aukerak eskaintzen dituzten jokoetarako elementuak nahi ditugu.

Jolastokia Baterako Hezkuntza bultzatzeko balio behar du, hezkuntza gune bat da non bizipenak, harremanak, gatazkak eta haien soluzioak ematen diren.

Gure nahia, Ikasleriak eta haien Familiak hala adierazita, jolastokiko gune guztiak ezaugarri hauek izatea da: gauza guztiek tokia izatea, eta jokorako proposamen bakoitzaren ardatza ameskeria, ilusioa eta sormena izateko aukera ahalbidetzea.

C.- NOLA ANTOLATZEN GARA?

1. HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAREN OINARRIZKO PRINTZIBIO ETA IRIZPIDEAK

Ikastetxean Irizpide Pedagogiko oinarritzkoak **entzute aktiboa** eta **obserbazio zuzenak** dira. Ondorioz, afektibitate-giro egokia sortzen da, non ikasleak ikasteko beharra sentitzen du.

Hezkuntzako esku-hartzea printzipio hauetan oinarrituko da:

- **Indibidualtasuna:** Ikaslearen aurretiko ezagutzak abiapuntu harturik, bere gaitasuna kontutan hartu eta bere heltzeko erritmoa errespetatu behar dugu.
- **Ekintzak:** Haurrak bere ikasketa aurrera eramaten du, prozesu horren jabea bera da, obserbazioan, eskuztatzean, esplorazioan eta esperimendazioan oinarritzen delarik.

- **Garapen integrala:** Haurren ikasketa osoa izan behar du, arlo desberdinak lantzen dira (fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa). Ikasketa funtzionala izan behar du, taldekako mailan edo bakoitzaren mailan, gelako egoera desberdinetan eta bizitzarako arlo ezberdinetan aurrera eramateko.

Printzipio guztiak batera elkartzen direnean, **ikasketa garrantzitsuaz** ari gara.

Jokoa, eskuztatzea eta esperimentazioaren bidez, hurrek ikasketa guztiak integratzen eta barneratzen dituzte.

Eskolako metodologiak, **aktibotasuna** eta **proiektuetan oinarritutako lana** ezaugarri bezala ditu. Metodologiak haurren interesak, aurretiko ezagutzak eta motibazioa ardatz hartzen ditu.

Haurrak, beraien ikasketa prozesuan egin beharreko bidea markatzen digute.

Gelaren antolaketa, gune antolatuetan eta lan arlo desberdinetan oinarritzen da. Helburuak hauek dira:

- Joko bidezko ikasketa aktiboa eta garrantzitsua lagundu.
- Autonomia eta norberaren kontrola erraztu.
- Haur bakoitzak bere ekintzen bidez ikasten du, aurkikuntza pertsonalak eginez.
- Jokoarentzako txokoak motibazioa eragiten du, haur bakoitzaren beharretara egokituta dago, Eskola haurren errealitateraino gerturatzen du, metodologia irekia da.
- Berdinen arteko harremanak eta lankidetzak sustatzen dira.
- Haurrak mota askotako proposamenak eta ikasketarako egoerak eskuragarri ditu. Hau honela izanik, oinarrizko gaitasun hauek garatzeko aukera ematen zaio:
 - Gaitasun linguistikoa.
 - Matematikarako gaitasuna.
 - Mundu fisikoarekiko elkarrekintza eta ezagutzari buruzko gaitasuna.
 - Informazioaren tratamendua eta arlo digitalari buruzko gaitasuna.
 - Gizarte eta herritartasunari buruzko gaitasuna.
 - Gaitasun kulturala eta artistikoa.
 - Ikasketarako ikasteko gaitasuna.
 - Autonomia eta ekimen pertsonalari buruzko gaitasuna.

Azken finean, Ikastetxeko helburua bizitzako egunerokotasuneko arlo guztietarako Ikasleagoak gaitasuna izatea da.

Bitartekaria den pertsona helduaren papera hauxe da:

- Ikasleriak bere ikasketa bidean aurkitzen dituen zailtasunetaz jabetu, aberasteko eta gidatzeko garaian agertutakoak.
- Norbanakoarentzako ekintzak eskaini.
- Entzute aktiboa eta obserbazio zuzenak landu.
- Ikasketa prozesuan laguntzaile papera bete.

2.- ORIENTAZIOAREN ANTOLAKETA

Orientazioa bi zutabetan oinarritzen da: **errespetua** eta **laguntza**. Orientaziorako funtzioa arlo teknikoa izanik, Ikastetxeko Orientatzaileak bereganatzen du funtzioa. Baina, Hezkuntza Komunitateko partaide diren pertsona helduek badute ere zeresana arlo honetan, bakoitzaren funtzioetan orientazioa sartzen da eta.

Haurren eta haien Familien garapen eta hazkuntza prozesua errespetatzea eta laguntzea, ikuspegi klinikotik eta patologikotik aldentzea dakar. **Ikuspegi sistemikoa** ardatza izan behar du, haur bakoitza eta Familia bakoitzaren potentzialtasuna eta hobekuntzarako aukerak aurkitzeko saiakeran oinarritzen da, nahiz eta batzuetan ez izan agerikoak.

Hutsuneak, zailtasunak eta blokeoak hazkuntza prozesuaren parte dira, “oraindik ez” bezala. Egoera hauetan, esku-hartzeak ez dakar diagnosiak eta zuzenketak egitea, ezta arintzea era, estimulazioa lantzea, laguntzea, bideak aurkitzea baizik, egoera hauek itxiak eta mugiezinak ez direla jakinik. Momentu hauetan, **erresilientzia** baliabide bezala egokia deritzogu, pertsona bakoitzak hazteko gaitasuna eta norberaren onena emateko gaitasuna baitu egoera etsigarrietan, betiere harreman sendo bat izanik laguntzarako.

Esku-hartzeak orientazioaren alorrean, ohiko tresnen (obserbazioa, froga estandarizatuen kudeaketa, elkarrizketak, etab.) erabileraren helburuak prozesuak, eta Ikasleriaren eta haien Familien potentzialtasunen eguneraketa laguntzekoak dira, sistematikoki etiketak jartzea eta bazterketak saihestuz.

3.- EBALUAKETARAKO ORIENTAZIOA

Ebaluaketa hezigarria, etengabekoa, bakarkakoa eta osoa izango da. Obserbazio zuzena eta sistematikoa ebaluaketa prozesuko teknika nagusia izango da.

Barneratutako ikasketak identifikatzeko, eta haur bakoitzaren eboluzioaren erritmo eta ezaugarriak ezartzeko aukera ematen duelako **hezigarria** da, laguntzarako neurriak hartzeko aukerak emanez. Beharrekoa duen Ikasleriarentzako Kurrikulum-a egokitzeko eta aberasteko neurriak hartzeko ere aukera ematen du.

Irakaskuntza prozesuaren eta haurren ikasketa prozesuaren barruan dagoelako **etengabekoa** da. Gelako egunerokotasunean ere txertatuta dago.

Ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontutan hartuta egindakoa delako **bakarkakoa** da, betiere Ikasle bakoitzaren garapen pertsonal eta sozialaren aurrera egitean laguntzeko.

Arlo eta/edo Materia bakoitzeko Ebaluaketa Irizpideak erreferentzia nagusi bezala izateaz aparte, Etapako Helburu Orokorren lorpena era kontutan hartzen dituelako **osoa** da.

Hau honela izanik, Kurrikulum-eko esparrua betetzen da oinarrizko gaitasunei dagokionez.

Ebaluaketa, talde/gela bakoitzarekin harreman zuzena duen Irakasleen aldetik, partekatutakoa eta adostutakoa izango da.

Ikasleriaren Ebaluaketaz aparte, Irakaskuntza-Ikaskuntza prozesua eta Irakasleriaren lana ebaluatuko dira definitutako Ebaluaketarako Irizpide eta Teknikak jarraituz.

4.- ANTOLAKUNTZAKO EGITURA

4.1.- Espazio baliabideak

Ikastetxea eraikin bakar batean aurkitzen da, non hurrengo gelak eta zerbitzuak dauden:

- 27 gela.
- Ikasleria eta Irakasleriarentzako komunak.
- Bikoizketa/Laguntzarako gelak.
- Logopedia/PT gela.
- Orientazio gela.
- Guraso Elkartearantzako gela.
- Liburutegia.
- Gimnasioa eta aldagelak.
- Psikomotrizitate gela.
- Musika gela.
- Informatika gela.
- Jantokia eta sukaldea.
- Zuzendaritza eta Administrazio-ko bulegoak.
- Atezaintza.
- Biltegiak.

4.2.- Giza baliabideak

4.2.1.- Irakasleria

2011/2012 Ikasturtean, Irakasleen Klaustroaren partaideak hauek dira:

- Haur Hezkuntzako 12 Irakasle (Tutoreak eta laguntzaileak)
- Ingeleseko 5 espezialista.
- Euskarako 2 espezialista.
- Erlijio Katolikoan espezialista 1.
- Logopedian espezialista 1.
- Pedagogia Terapeutikoan espezialista 1.
- Orientatzaile 1.

4.2.2.- Irakasleak ez diren Langileria

Eskolako beste Langileriaren osaketa hauxe da:

- Zaintzaile 1.
- 3 Atezain.
- Administrari 1.
- 3 Garbitzaile.

4.3.- Pertsona bakarreko Gobernurako Organoak

- Zuzendaria.
- Ikasketa Burua.
- Ikasketa Buruaren Albokoa.
- Idazkaria.

Zuzendaritza Taldeak eginkizun hauen ardura izango du:

- Ikastetxeko funtzionamenduaren zainketa, berau egokia izan dadin.
- Hezkuntza Proiektuaren proposamena, Urteko Programazio Orokorra eta Ikasturteko Bukaerako Oroitidazkia sortu.
- Eskolako Komunitateari prebentzio-jarduerak proposatu, zeinak elkarbizitza laguntzeko helburua duten.
- Ikastetxeko ekintza eta proiektu desberdinen Ebaluaketa Prozedurak proposatu.
- Hezkuntza Komunitate osoaren parte-hartze koordinatua lagundu eta sustatzeko proposamenak aztertu, eta Klaustroari eta Eskola Kontseiluari proposamen hauek aurkeztu.

4.4.- Pertsona askotako Gobernurako Organoak

4.4.1.- Eskola Kontseilua

Eskola Kontseilua Ikastetxeko ordezkaritzarako, parte-hartzerako eta erabakiak hartzeko organo nagusia da. Bertan, Hezkuntza Komunitateko estamentu desberdinen ordezkariak daude.

Eskola Kontseiluko eskumenak, besteak beste, hauek dira:

- Hezkuntza Proiektua egiteko, onartzeko eta ebaluatzeko arauak ezarri, Klaustroari dagozkion eskumenak kontutan izanik.
- Elkarbizitzarako Arautegia onartu.
- Urteko Programazio Orokorra egiteko, onartzeko eta ebaluatzeko irizpideak definitu, Klaustroari dagozkion irakaskuntza-atalak errespetatuz.
- Ikastetxeko Aurrekontuaren Proiektua eta berau burutzeko Arauak onartu.
- Eskola Egutegia egin.
- Gatazkei aterabideak aurkitu eta zuzenketak ezarri helburu pedagogikoarekin.
- Ikastetxeko instalazio eta ekipamenduen berriztapena sustatu, eta haien kontserbazioa zaindu.
- Ikastetxeko funtzionamenduari buruzko Urteko Oroitidazkiaz berri eman.

4.4.2. Irakasleen Klaustroa

Klaustroa, Irakasleriak Ikastetxean parte hartzeko organoa da, eta Ikastetxeko irakaskuntza-atalak planifikatu, koordinatu eta erabakiak hartzeko ardura du.

Eskolan dauden Irakasle guztiak osatzen dute (Irakasle Tutoreak eta Irakasle Espezialistak), Klaustroko burua Zuzendaria delarik.

Klaustroaren eskumenak, besteak beste, hauek dira:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta Urteko Programazio Orokorra egiteko proposamenak Zuzendaritza Taldeari helarazi.
- Etapa bakoitzeko Kurrikulum-aren Proiektua sortzeko irizpideak jarri, aipatutako Proiektuak onartu, ebaluatu eta berauentzako aldaketak erabaki.
- Urteko Programazio Orokorreko irakaskuntza-atalak onartu eta ebaluatu.
- Esperimentazioa eta ikerketa pedagogikoaren alorretan ekimenak sustatu.
- Irakasleriarentzako Formazioa Plana egin, Koordinazio Pedagogikoarentzako Batzordearen proposamenak abiapuntu harturik.
- Eskolak bere inguruneko Erakundeekin dituen harremanak ezagutu.
- Eskola Kontseiluan Klaustroa ordezkatzeko duten ordezkariak hautatu.

4.5.- Irakaskuntza-koordinaziorako organoak

4.5.1.- Tutorea

Tutorearen lana irakaskuntza-jardueraren eginkizun garrantzitsuenetako bat da.

Bere funtzio anitzen artean, hauek dira nagusienak:

- Ikasleriak ikasketa aurrera eraman eta Kurrikulum-eko Arloetan eta Materietan aurreikusitako gaitasunak bereganatzeko beharrezkoak diren ekintzak planifikatu eta garatu.
- Ikasleriaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta bere irakaskuntza-jardura ebaluatu.
- Gurasoei, bakarka eta/edo taldeka, Eskolako ekintza eta errendimendu Akademikoarekin harremana duen informazioaren berri eman.
- Ikasleria bere ikaskuntza-eboluzioari buruz orientatu eta aholkatu.
- Bere ardurapean dauzkan Ikasleen bakarkako dokumentazio Akademikoa osatu.
- Ikasleria Ikastetxeko egunerokotasunean eta bere Taldean integratu dadin lagundu.

- Ikasleriaren ikasketa prozesuaren zailtasun orokorrak eta heziketa behar bereziaz arduratu.
- Kurrikulum-eko egokitzapenak eta heziketarako esku-hartzeak Orientatzailearekin eta Laguntzarako Irakasleriarekin koordinatu.
- Eskola eta Familien arteko harremana naturala izan dadin lagundu.

4.5.2.- Mailako Taldeak

Maila bakoitzeko Tutoreek eta Espezialistek osatzen dute. Bere eskumenekin zerikusia duten eginkizunak aurrera eramateko biltzen dira. Bere eskumenak, besteak beste, hauek dira:

- Jardueren planifikaziorako, proiektuetarako, etab.-erako koordinazioan parte hartu.
- Gelako dinamikaren azterketa egin, eta hutsuneak antzeman.
- Informazioaren partekatzea egin.
- Prozeduren ebaluaketa.
- Baliabideen azterketa.
- Koordinazio Pedagogikoarentzako Batzordearen proposamenak garatu.

4.5.3.- Zikloko Taldeak

Zikloko Taldea Zikloa osatzen duten Irakasleriaz osatuta dago. Talde bakoitzak Zikloko Koordinatzailea dauka, Zikloko ordezkaria, bozeramailea eta dinamizatzailea delarik. Zikloko Taldearen funtzioak, besteak beste, hauek dira:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Urteko Programazio Orokorra eta Etapetako Kurrikulum Proiektua egiteko proposamenak egin.
- Irakaskuntza-jarduerak, jarduera Osagarriak eta Eskolaz Kanpoko jarduerak antolatu eta aurrera eraman.
- Metodologia didaktiko eguneratuen erabilera bultzatu.
- Zikloa amaitzerakoan, Ikasleriaren ebaluaketa eta promozioaren inguruko erabakiak hartzerakoan, Tutorearekin elkarlanean aritu.

4.5.4.- Koordinazio Pedagogikoarentzako Batzordea

Ikastetxeko arlo pedagogiko eta didaktikoei buruzko erabaki gehienak hartzen dituen koordinaziorako organoa da.

Bere egitura hauxe da:

- Zuzendaria.
- Ikasketa Burua.
- Zikloko Koordinatzaileak.
- Orientatzailea.
- Hezkuntza Laguntzarako Unitateko Irakasle bat.

Bere eskumenetako batzuk hauek dira:

- Etapetako Kurrikulum Proiektuak egiteko eta aztertzeke Arau Orokorrak ezarri.
- Eskolako irakaskuntza-jarduerari dagokionez, Etapetako Kurrikulum Proiektuak aurrera eramaten direla zaindu.
- Ikastetxeke Hezkuntza Proiektua, Etapetako Kurrikulum Proiektuak eta Urteko Programazio Orokorren arteko koherentzia bermatu.
- Hezkuntzako Orientazioa eta Tutoretzarako Ekintza Planaren antolaketarako proposamena egin.
- Ikasleriaren Hezkuntzako Orientazioa koordinatu.
- Irakasleriaren Formazioa Plana proposatu.
- Eskolako Jarduera eta Proiektu guztien ebaluaketa sustatu.

4.5.5.- Hezkuntza Laguntza Unitatea

Bere egitura hauxe da:

- Zuzendaria.
- Orientatzailea.
- Logopeda.
- Pedagogia Terapeutikako Irakaslea.

Bere funtzio anitzen artean, hauek dira nagusienak:

- Hezkuntza laguntza beharrak dituzten Ikasleriarentzako hezkuntza laguntza diseinatu, garatu eta ebaluatu.
- Ikasketa arazoaren prebentzioan eta antzematean, eta aipatutako arazoaren Ikasleriarentzako Kurrikulum egokitzapenen programazioan eta planifikazioan, Irakasleriarekin elkarlanean aritu.
- Esku-hartze espezializatua behar duten kasuetan, Familiei aholku eman.
- Hezkuntza Zerbitzu, Osasun Zerbitzu eta Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean aritu, Ikasleriaren hezkuntza beharren inguruan esku-hartzeko aipatutako Zerbitzuen alorretan.

4.5.6.- Hizkuntza Planifikaziorako Batzordea

Ikastetxean irakasten diren hiru hizkuntzen (Gaztelania, Ingelesa eta Euskara) tratamendua planifikatu, koordinatu eta berrikusteko ardura duen Komisia da, ikuspegi integratzailea ardatz harturik eta Ikasleriaren gaitasun eleanitza garatzeko helburuarekin.

Planifikazioa “Hizkuntza Proiektua”-n definituta dago, erreferentziarako dokumentua hizkuntzen ikasketaren koordinazioan oinarritutako irakaskuntza jarduetarako. “Hizkuntza Proiektua” Ikasturte bakoitzean osatu eta berrikusten ari den dokumentua da.

Hizkuntza Koordinaziorako Batzordea hizkuntzetan espezialistak diren Irakasleak (Ingelesa eta Euskera) eta Ikasketa Buruaren Albokoak osatzen dute, non Ikasketa Buruaren Albokoa koordinatzen duen. Hamabost egunero bilera egiten dute, definitutako eginkizunen inguruan hausnarketa egiteko eta erabakiak hartzeko. Hezkuntza Taldeak lanerako proposamenak jasotzen ditu eta bere ekarpenak egiten ditu. Hizkuntza Koordinaziorako Batzordea eta Hezkuntza Taldea bi hilero biltzen dira, eta adostasunak bilatzen dira eta erabakitakoak ezartzen dira.

4.6.- Eskolako Komunitateak parte-hartzeko organoak

4.6.1.- Guraso Elkarteak

C.P. Buztintxuri I.P.-ko Guraso Elkarteak Ikastetxearekin batera jaio zen.

Guraso Elkarteak parte-hartzeko eta laguntzeko esparrua, Eskolako lan ildoan oinarritzen da. Hizkuntza Eredu bakoitzeko Familiez osatzen da eta haien parte-hartzea berdintasunean oinarritzen da.

Guraso Elkarteak antolatutako jardueren helburu nagusia Eskolako Komunitatearen funtzionamendu egokian laguntzea da. Komunikazio egokian eta bi noranzkoko koordinazioan (Eskola-Familiak) oinarrituz, helburua Hezkuntza Proiektuaren aurrerapenean, garapenean eta segimenduan Eskola Komunitate osoa inplikatu eta integratzea da. Guraso Komunitatearen barneratze prozesua martxan jartzen da honela, parte-hartzeko tresna desberdinen bidez: Buztinkolore bloga, haurtzaindegi eta jantokiko zerbitzuen bitartez, Eskolaz Kanpoko jardueren planifikazio eta kudeaketaren bidez, formazioa ekintzen planifikazio eta garapenaren bidez, Familiei zuzendutako sentsibilizazioaren bitartez (hezkuntza alorretan, hizkuntza alorretan, etab.) eta Hezkuntza Komunitate osorako festen antolaketaren bidez.

Aurretik aipatutakoari jarraiki, bultzatzen diren helburu espezifikoak hauek dira:

- Hezkuntza Komunitateko partaide garrantzitsu diren heinean, Familiak Ikastetxean parte-hartzea lagundu eta bultzatu.
- Proiektuetan oinarritutako metodologia, gaitasun linguistikoa, baloreetan oinarritutako hezkuntza, baterako hezkuntza eta abarrekin koherenteak diren Eskolaz Kanpoko jardueren garapena.
- Familiak haien seme/alaben hezkuntzarekin harremana duten arloei buruz trebatu eta sentsibilizatu, Hezkuntza Proiektuaren metodologia eta baloreak kontutan harturik.
- Kontziliazio familiarra ahalbidetu haurtzaindegi eta jantokiko zerbitzuen bidez. Helburua ordutegi jakin bat betetzeaz gain, kalitatezko zerbitzua ematea da.
- Ikastetxeko errealitatea gure auzoan barrena zabaltzea.

Aipatutakoa aurrera eramatean, Hizkuntz Eredu bakoitzaren behar desberdinak kontutan hartu eta zaindu beharrekoak dira.

4.6.2.- Elkarbizitza Batzordea

Batzorde honen egitura honakoa da:

- Zuzendaria.
- Ikasketa Burua.
- Irakasle bat.
- Ikasle baten Aita edo Ama.

Elkarbizitza Batzordeak Eskola Kontseiluari Elkarbizitzarako Arauen aplikazioaren berri ematen dio. Batzordeko eskumenak Elkarbizitzarako Arautegian idatzita daude.

4.6.3.- Batzorde Ekonomikoa

Egitura hauxe da:

- Zuzendaria.
- Zinegotzia edo Udaletxeko ordezkaria.
- Irakasle bat.
- Ikasle baten Aita edo Ama.

Batzorde Ekonomikoak, Eskola Kontseiluak emandako materia ekonomikoei buruz Eskola Kontseilua informatuko du.

4.7.- Beste Entitate eta Erakundeekin elkarlana

Gure inguruneko Entitate eta Erakundeekin elkarlanean aritzea eta koordinazioa lantzea oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela pentsatzen dugu, betiere Eskolako hezkuntza filosofia kontutan hartuta.

4.7.1.- Buztintxuri Osasun Etxea

Ikastetxea Buztintxuri Osasun Etxearekin elkarlanean aritzen da eta berarekin ekintza desberdinetan parte hartzen du. Ekintza hauek haur obesitateari buruz, elikadura egokiaren kontzientziarioari buruz eta garbitasun ohitura osasuntsuak garatzeari buruz dihardute. Hona hemen adibide batzuk:

- “Osasuntsu jan eta mugitu” kanpaina.
- Gosari osasuntsua.
- Familiei zuzendutako hitzaldi informatiboak.
- Informazio panelak.

Aipatutakoa aurrera eramatean, Osasun Etxeko Gizarte Langilearekin koordinatuta egonik eta Osasun Etxeko Pediatria Taldearekin elkarlanean arituz.

Pediatria edo Neuropediatriak hala eskatuta, hainbat ikasleen informazioa elkartrukutzen da, balorazio psikopedagogikoko txostenak egiteko.

4.7.2.- Osasun Etxe Mentala

Osasun Etxe Mentaleko eta Haur-Gazteentzako Eguneko Ospitaleko langileekin elkarlana eta koordinazioa, informazioa elkartrukatzeko helburuarekin.

4.7.3.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Bilerak eta kontaktu telefonikoak beharren arabera, ekintzak koordinatu eta informazioa partekatzeko helburuarekin.

Ikasturtean zehar, bilera desberdinak aurrera eramaten dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako hezitzaileekin Ikasleriari buruzko informazioa elkartrukatzeko.

Gure Eskolan existitzen diren behar sozialak antzematen saiatzen gara, haien laguntza eta elkarlanarekin batera. Konponbidea aurkitzeko helburuarekin jardungo gara, batera eta elkarlanean.

4.7.4.- Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Ikastetxea Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean dabil, Ikasturtero Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasle-ikasketak diharduten ikasleek praktikak egin ditzaten gure Eskolan.

Eskola Unibertsitatearekin elkarlanean dihardu, hezkuntza arloko berrikuntza eta ikerketa arloetan.

4.7.5.- Volkswagen

Ikastetxeak elkarlanerako hitzarmena dauka automobil lantegiarekin, non Volkswagen-ek Eskolari birziklapen materiala ematen dion.

Gure Ikasleriarekin ingurugiroa zaintzeko balorea eta zentzuzko kontsumoa lantzeko eta sustatzeko modu bat da.

4.7.6.- Iruñeko Arte eta Ofizio Eskola

Proiektu desberdinak garatzeko asmoarekin, Iruñeko Arte eta Ofizio Eskolarekin elkarlana ematen da.

4.7.7.-Elkartasun Eskolen Sarea

Ikastetxea Elkartasun Eskolen Sarearen partaidea da.

Lan Bateraturako Plan Integrala egingo dugu, lankidetzeta eta garapena lantzen duten Entitate desberdinekin batera. Helburua Hezkuntza Komunitateak Eskolako dinamikan lan honen isla izatea da.

Hezkuntza Taldeak, Hezkuntza Departamentuak antolatutako formazio saioak jasotzen ditu elkartasuna eta elkarbizitzaren inguruan.